

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko otsailaren 20tik otsailaren 24rako astea

☐ **INGURU MAKROA:**

- ☐ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ☐ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


☐ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

☐ **GURE IKUSPEGIA**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EUROGUNEKO PMI KONPOSATUA




Datuaren analisisa

Otsaileko atariko PMIek gorakada handia erakutsi zuten. Euroguneke konposatua 56,0 puntutan kokatu zen (54,4 aurrekoa eta 54,3 kalkulatu); manufakturen (55,5) eta zerbitzuen (55,6) sektoreek aurrera egin dute. Herrialdeen arabera, Alemaniak portaera positiboa izan zuen bi adierazleetan, manufaktura 57ra iritsi zen, eta zerbitzuena 54,4ra. Konposatua, aldiz, 56,1ekoa izan zen, 54,8koa izatea aurreikusten bazen ere, aurrekoa bezalakoa. Frantzia, manufaktura indizea pixka bat motelago ibili zen, eta 52,3ra egin zuen atzera; zerbitzuenak (56,7) eta konposatuak (56,2), aldiz, gora egin zuten nabarmen.

Adierazlearen azalpena

Euroguneke zerbitzuen eta manufaktura sektoretako 5.000 enpresari baino gehiagori hileroko bidaltzen zaien galdetegi baten erantzunetatik lortzen da PMI Konposatua. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

EUROPA: IFO ALEMANA



Datuaren analisia

Enpresen konfiantza neurtzen duen Alemaniako IFOa ustekabean 111,0raino igo zen otsailean, bere bigarren mailarik altuena ia 3 urtetan, oraingo osagaiaren eta etorkizuneko aukeren hobekuntzarekin. Hain zuzen ere, gaur egungo egoeraren gaineko baikortasuna azken bost urteotako maximoetan zegoen (118,4 puntu), eta aukeren osagaia, aldiz, 104,0raino igo zen (aurretik 103,2).


Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jardura ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ETXEBIZITZEN SALMENTA



Datuaren analisisa

Bigarren eskuko etxebizitzaren salmentaren datuak aurreikuspen guztiak gainditu zituen urtarrian, eta aurreko hileko datuak gorantz berrikusi ziren. Aurreko 5,51m-tik gorakada handia izan zuen 5,69m-raino, aurreikuspena 5,55m zen bitartean. Bestalde, etxebizitza berrien salmenta urteko 555.000 alera iritsi zen, beraz, aurreko urtean baino % 3,7 gehiago (535.000). Espero ziren 571.000tik behera dagoen datua da, baina oraindik Estatu Batuetako higiezinaren merkatua sendo dagoela erakusten duena.

Adierazlearen azalpena

Bigarren Eskuko Etxebizitzaren Salmenta-indizea hilero argitaratzen da, eta hilean itxi diren salmenten tasa neurtzen du, etxebizitzena, jabekidetzena eta bigarren eskuko kooperatibena. Higiezinaren sektorearen joerak zehazteko balio duen adierazlea da. Etxebizitza Berrien Salmenten indizeak, aukeratutako 15.000 etxebizitza-proiekturen artean, 10.000 eraikitzaile edo jabetari egindako elkarrizketak ditu oinarri. Salmenta-konpromisoa daukaten etxebizitza eraiki berrien kopurua neurtzen du. Higiezinaren merkatuko joerak eta altzari eta etxe-tresna elektrikoaren kontsumitzaileen bultzada ekonomikoa eta erosketa-ekimena erakusten dizkigu.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
02/27	Espainia	Hileko KPIa	-0.2%
02/27	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	108.0
02/27	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-6.2
02/27	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmenta	1.0%
02/27	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	19.4
02/28	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	0.4%
02/28	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-6
02/28	Frantzia	Hiruhileko BPGd	0.4%
02/28	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	2.1%
02/28	Estatu Batuak	Kontsumo pertsonala	--
02/28	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	0.4%
02/28	Estatu Batuak	MoM xehekako inbentarioak	--
02/28	Estatu Batuak	Chicagoko manufaktura indizea	53.0
02/28	Estatu Batuak	Richmond manufaktura indizea	10
03/01	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
03/01	Txina	Ez fabrikazioaren PMIa	--
03/01	Txina	Fabrikazioaren PMIa	51.2
03/01	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	50.8
03/01	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	55.5
03/01	Italia	YoY urteko BPGd	1.0%
03/01	Erresuma Batua	Markit UK PMI Manufacturing SA	55.6
03/01	Alemania	Hileko KPIa	0.6%
03/01	Estatu Batuak	Diru-sarrerak pertsonalak	0.3%
03/01	Estatu Batuak	Gastu pertsonala	0.3%
03/01	Estatu Batuak	YoY PCE zentrala	1.8%
03/01	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	56.0
03/01	Estatu Batuak	AEB Petrolio gordinaren inbentarioak DOE	--
03/01	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
03/02	Espainia	Hiruhileko BPGd	0.7%
03/02	Eurogunea	Langabezia tasa	9.6%
03/02	Eurogunea	Urte arteko KPIaren kalkulua	1.9%
03/02	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	0.9%
03/02	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	245k
03/03	Japonia	Urte arteko KPIa	0.4%
03/03	Japonia	PMI Nikkey composite Japonia	--
03/03	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
03/03	Alemania	Hileko xehekako salmentak	0.2%
03/03	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	55.6
03/03	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	56.0
03/03	Italia	WDA QoQ BPGd	1.1%
03/03	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	55.6
03/03	Eurogunea	Hileko xehekako salmentak	0.3%
03/03	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	56.5

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Portaera desberdinak aste honetan Atlantikoaren alde bakoitzean. European, datu makroekonomiko gutxi argitaratu ziren, baina positiboak. Otsaileko atariko PMlek ezustekoa eman zuten, gorakada oso handia izan baitzen, eta Alemaniako IFOa nabarmen hobetu zen, hala aukeren osagaia nola gaur egungo egoerarena. Hala ere, Frantziako ziurgabetasun politikoak eragina izan zuen, eta banku ingelesen emaitza kaskarren argitalpenarekin batera, finantza-sektorea kaltetu zuen. Ondorioz, plaza nagusiek galera arinekin itxi zuten, beste sektore batzuen (esate baterako, telekomunikazioen) bultzada gorabehera. Bitartean, AEBetan merkatu nagusiek gorako bidean itxi zuten, eta Dow Jones eta S&P indizeak maximo historikoetara iritsi ziren. Etxebizitzaren salmenten datu onak argitaratu ziren, baina asteazkenean argitaratu ziren FEDen aktekin erakarri zuten arreta osoa. Espero zen tasen etorkizuneko igoeren joera baieztatu zen, baina igoera-erritmoen inguruan kideek dituzten desberdintasunak nabaritu ziren, eta beraz, hurrengo bileren zain egon beharko dugu datu zehatzagoak lortzeko. Japonian eta herrialde gorakorretan oro har, astea pixka bat positiboa izan zen.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
MSCI WORLD (Local)	1.423,49	0,25	4,34
IBEX 35	9.453,50	-0,49	1,08
DJ EURO STOXX 50	3.304,09	-0,14	0,41
DJ STOXX 50	3.071,97	-0,04	2,04
FTSE	7.243,70	-0,77	1,41
S&P 500	2.367,34	0,69	5,74
Dow Jones	20.821,76	0,96	5,36
NASDAQ	5.845,31	0,12	8,59
NIKKEI 225	19.283,54	0,25	0,89
MSCI EMERGENTES (Lo	50.651,98	0,04	6,30
MEXBOL	47.047,67	-0,25	3,08
BOVESPA	66.662,10	-1,60	10,68
SHANGHAI	3.406,79	1,61	4,84
Rusia Rts Moscú	1.129,09	-2,01	-2,02

ERRENTA FINKOA:

Arriskutik urruntzeko eta kalitatezko aktiboetan (hala nola zor publiko aleman eta estatubatuarrean) babesa bilatzeko astea izan da. Errentagarritasunak nabarmen murriztu dira. 10 urterako bonu alemanaren errentagarritasuna 12op jaitsi zen, % 0,19ra, eta 2 urterako tasa, berriz, -% 0,95era, minimo historikoetan. AEBetan 10 urterako tasa ere 10op jaitsi zen, eta % 2,31n itxi zuen.

Bestalde, zor espainiarrak zigorra jaso du aste honetan, eta 10 urteko errentagarritasunak 6op egin zuen gora, % 1,70eraino. Hortaz, arrisku-prima 151op-etaraino handitu zen. Kreditu-merkatuan aldaketa gutxi.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisetan, Europako ziurgabetasun politikoak txanpon bakarrari eragin zion, eta gurutzaketa nagusietan balioa galdu zuen. Astearen amaieran 1,056 \$/€ mailan zegoen dolarren kontra eta 0,8478£/€ liberaren kontra. Lehengaietan, AEBetako petrolio-plataformen kopuruak gora egin badu ere, aste amaieran espero zena baino inbentarioko datu apalagoen ondorioz eta ekoizpenaren murrizketarengatik pozik agertu zen LPEEren idazkari nagusiaren adierazpenen eraginez, petrolioaren prezioak gora egin zuen, eta upela 55,54 dolarretara iritsi zen. Urrearen balioak ere gora egin zuen: 1,257 \$/ontza.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	% Ald 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,95	-0,14	-0,18
ESPAINIA 2 URTE	-0,10	0,14	0,18
AEB 2 URTE	1,14	-0,05	-0,05
ALEMANIA 10 URTE	0,19	-0,12	-0,02
ESPAINIA 10 URTE	1,70	0,06	0,31
AEB 10 URTE	2,31	-0,10	-0,13
ALEMANIA 30 URTE	0,94	-0,15	-0,01
ESPAINIA 30 URTE	2,93	-0,03	0,31
AEB 30 URTE	2,95	-0,07	-0,11

Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	74,75	0,91	2,71
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	295,54	-2,03	6,84

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
Dolarra / Euroa	1,06	-0,47	0,42
Yena / Euroa	119,03	-0,92	-3,41
Libera / Euroa	0,85	-0,61	-0,78

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2017ko % Ald
Petrolio (Brendt)	55,54	0,82	0,23
Urrea	1.257,15	1,80	9,10

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.